

## KONTROL OFIZIALAK ELIKAKATEAN

### 882/2004 ARAUDIA

Aurreko mendearen amaiera aldera, elikagaien kontsumoarekin lotutako hainbat krisi gertatu ziren, eta harrezkero herritarrak sekula baino elikagai segurtasun handiagoa eskatzen hasi ziren. Une horretatik aurrera, elikagaien segurtasunak berebiziko garrantzia hartu zuen Europako politiken agendetan, eta kontsumitzen ditugun elikagaien segurtasuna areagotzeko araudiak argitaratzen hasi ziren. Horietan, azpimarratu egiten da elikakatearen lehenengo kateen garrantzia.

BAKARRA

INTEGRATUA

Araudi horietako bat 882/2004 Araudia da, elikagaien ekoizpenaren fase guztietan, alegia, elikakatearen fase guztietan, administrazioek egiten dituzten kontrol ofizialak arautzen dituena. Besteak beste, Araudi horrek xedatzen du estatu kide bakoitzak Plan bakarrean jaso behar dituela erakunde eskudunek egiten dituzten kontrol guztiak (elikagaien lehenengo ekoizpenetik hasi eta kontsumitzailearentzako saltegielara iritsi arte). Horrela, hutsuneak hauteman eta gainezarpenak ekidin egiten dira. Horrez gain, optimizatu egiten dira kontrol ofizialerako eskura dauden baliabideak.

Araudiak exijitu egiten du Plana hainbat urtetarako izatea. Horrek denbora tarte zabala ematen du, beharrak lehenesteko eta aurreikusitako jarduera guztiak gauzatzeko. Hainbat urtetarako izateak, halaber, aukera ematen digu jarduerak urtero gainbegiratzeko, urteroko jarraipen-txostenen emaitzen eta gerta daitezkeen araudi-aldaketan arabera. Beraz, kontrolerako jarduerak ere berriz programatu ahal dira.

Espanian 2007-2012 eperako jarri zen abian Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionala (PNCOCA). Lehenengo Plan hori zela-eta, administrazioek ahalegin handia egin behar izan zuten; izan ere, lehenengo aldiz koordinatu behar zen osasun publiko, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikagai arloan egiten ziren kontrol-lan guztiak. Gainera, beharrezkoa izan zen kontrol-programa guztiak dokumentatzea eta lehendik ez zeuden beste kontrol-sistema batzuk abiaraztea.

Plan horretan jasotako eskarmentua eta egindako kontrol eta ikuskaritzen emaitzak aintzat hartuta, Elikakatea Kontrolatzeko Bigarren Plan Nazionala (PNCOCA) garatu zuten 2011-2015 eperako. Gaur egun Plan horretan gaude murgilduta.

2007/2010

2011/2015

## PNCOCA 2011-2015

PNCOCA 2011-2015 erreferentziazko dokumentua da, eta elikakatean egiten diren kontrol-jarduerak deskribatzen ditu. Plan hori kontrol ofizialetarako 28 programetan banatzen da. Horietatik 13k lehenengo sektoreari (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikakatea) eragiten diote, beste 13k elikagai establezimenduei eta 2k Kanpo Merkataritzari.

Planak bi zati dauzka. Bata, orokorra, alderdi horizontalak (besteak beste, koordinazio organoak, euskarri informatikoak, larrialdietarako planak, laborategietako baliabideak, langileen prestakuntza, ikuskaritzak eta urteko txostenak egitea) zehazten dituena; eta, bestea, berariazkoa, kontrol ofizialetarako 27 programak banaka-banaka zehazten dituena.

## PNCOCA-REN KONTROL OFIZIALETARAKO PROGRAMAK 2011-2015

### Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikadura:

Honako alderdi hauei buruzko kontrol ofizialak egin behar dira:

1. Higienearen kontrola erauzte arrantzaren lehen mailako ekoizpenean
2. Higienearen kontrola akuikulturaren lehen mailako ekoizpenean
3. Higienearen eta osasunaren kontrola abeltzaintzaren lehen mailako ekoizpenean
4. Animalien identifikazioaren eta erregistroaren kontrola
5. Animalien elikagaien kontrola
6. Animalien ongizatearen kontrola abeltzaintza ustategietan eta animaliak garraiatzean
7. Albaitaritza botiken zentzuzko erabileraren kontrola
8. Higiene eta osasun baldintzen kontrola esne gordinaren ekoizpenean
9. Giza kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuen (SANDACH) kontrola establezimenduetan eta garraioan
10. Landareen osasunaren kontrola
11. Elikagaien merkataritza kalitatearen kontrola
12. Geografia jatorri bati lotutako kalitate bereziaren eta merkaturatu aurretik bermatutako tradiziozko espezialitateen kontrola
13. Ekoizpen ekologikoaren kontrola

## Elikagai-establezimenduak:

Honako hau da kontrol programa:

1. Elikagai establezimenduen kontrol orokorra
2. Elikagai industriaren autokontrolen kontrola
3. Arrisku biologikoen kontrola elikagaietan
4. Toxina biologikoen kontrola: itsasoko biotoxinak elikagaietan
5. Kutsatzaileen kontrola elikagaietan
6. Plagiziden hondakinen kontrola merkatuan
7. Osagai teknologikoen kontrola elikagaietan
8. Elikagaiekin kontaktuan dauden materialen kontrola
9. Sendagaien hondakinen kontrola
10. Elikagai irradiatuen kontrola
11. Alergenoen eta elikagaiekiko intolerantziak eragiten dituzten substantzien kontrola
12. Organismo bioteknologikoen (OGMak) kontrola elikagaietan
13. Animalien ongizatearen kontrola ustiattegietan

## Kanpo MerkatariTza:

Honako hau da Kontrol ofizialetarako Programa:

1. Animalien SANDACHen eta animaliak elikatzeko produktuen inportazioaren kontrola
2. Giza kontsumorako diren elikagaien inportazioaren kontrola

## PNCOCA-REN BEREZITASUNAK

- ⇒ PNCOCA kontrol ofizialak hobetzeko lanabesa da, eta elikakatean inplikatur dauden sektoreei zein Kontrol ofizialak egiten dituzten erakunde eskudunei eragiten die.
- ⇒ Beste alde batetik, ekoizlea da bere katean ekoizten dituen elikagaien segurtasunaren erantzulea; beraz, ezagutu eta kontrolatu egin behar ditu bere ekoizpenean gerta daitezkeen arriskuak, eta horiek kontrolatzeko neurriak abiarazi behar ditu. Administrazioak zaindu eta kontrolatu egin beharko du produktuak bete egiten dituela aplikatu dakizkiokeen higiene-baldintzak.
- ⇒ Kontrol ofizialak egiteaz arduratzen diren langileei dagokienez, araudiak xedatzen du langile horiek prestakuntza egokia jaso behar dutela, beren eginkizuna modu eraginkorren eta kontrol ofizialak modu koherentean gauzatu ditzaten. Jaso duten prestakuntza dokumentatu egin beharko da, inoiz ikuskaritzaren bat eginez gero.
- ⇒ Erakunde eskudunek kanpoko erakundeei eskatu ahal izango diete zerbait kontrol-jarduera egitea. Ekintza horiek gauzatzea

eskuordetu ahal izango dute, baina sekula ez eskuduntza. Beharrezkoa balitz, programaren deskripzioan zehaztu beharko da zein diren eskuordetu diren ekintzak, zergatik eskuordetu diren, zein diren kanpoko erakundearen bikaintasun baldintzak eta gardentasun baldintzak.

- ⇒ Arriskuen balioztapenean oinarrituta lehenetsiko dira kontrolak eta banatuko dira kontrolerako baliabidea. Beraz, kontrolerako programa bakoitzean zehaztu beharko da arriskuen balioztapena. Halaber, horrek ahalbidetu egingo du kontrolen intentsitatea definitzea.
- ⇒ Kontrol ofizialerako jardura guztiak dokumentatu dira, Lan Prozedura Normalizatuetan.
- ⇒ Araudiak azpimarratu egiten du oso garrantzitsua dela Kontrol Programa bakoitzean inplikaturik dauden alde guztien koordinazioa. Hori dela eta, programa bakoitzean zehaztu egin beharko da zein diren dagoeneko badauden koordinazio mekanismoak, bai eta beste arlo, sektore edo elikakateko fase batzuetako kontrol planekin egon daitekeen lotura ere.
- ⇒ Azkenik, Kontrolerako Programa guztiak ikuskaritza egin behar dira gutxienez behin Planak irauten duen bitartean, eta ikuskaritza horien emaitzen arabera, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

## ONDORIOAK

Europako araudiak exijitzen duen kontrol ofizialetarako planen norabide berriaren helburua da arriskuak gertatu aurretik antzeman eta deuseztatzea. Horretarako, ezinbestekoa da kontrolak zehatz planifikatzea, inprobisazioak lekurik izango ez duen arrisku balioztapenean oinarrituta.

Era berean, PNCOCA abiaraztea aurrerapauso handia izan da administrazioen koordinazioan eta elikatatean egiten diren kontrol ofizial guztien integrazioan, horretarako eskura dauden baliabideak optimizatzea lortzen baita.

## GOMENDATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 Araudia, 2004ko apirilaren 29koa, pentsuen eta elikagaien arloko araudia eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko araudia betetzen direla egiaztatzeko egiten diren kontrol ofizialei buruzkoa.
- Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazioanala, PNCOCA 2011-2015. Ingurumenaren eta Landa zein Itsas Ingurunearen Ministerioa.
- Elikaren jardunaldia: Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazioanala. [http://www.elika.net/es/otros\\_documentos.asp?Id=65](http://www.elika.net/es/otros_documentos.asp?Id=65)
-